

The logo for 'ek!' is displayed in white lowercase letters on a red rectangular background.

eta kitto!
euskara elkarte

2025eko urriak 3 · 1368 zenbakia

The title 'BERBE TAN' is written in large, bold, black capital letters. The background features a collage of images: a man's face in the top right, a woman in a red shirt and sunglasses in the middle right, a group of diverse people in the top left, and a woman in a green patterned dress and black headscarf in the bottom left. A large blue shape is behind the letters 'BE'.

**EUSKARAZ
LAGUN GIROAN**

The logo for Unzaga Plaza features a stylized blue 'U' shape.

Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

Maite Orozco Ventura

Zure dentista gertu

UNTZAGA PLAZA 5, 4º
943 70 23 65
660 03 33 29
clinica@unzagadental.eus
www.unzagadental.eus



50 urte

R.P.S. 219/18

elortza⁺

zuen zerbitzura

www.elortzabotika.com

ONLINE DENDA **online eskatu eta etxean jaso**

J. Gisasola, 18 943 20 61 00



**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

Ane Mendiá
970 kol. zelaia.



INDIBA TERAPIAK
ARTIKULAZIO TENPORO-
MANDIBULARREKO ARAZOAK
TRATAMENDU PERTSONALIZATUAK
K-STRETCH KLASAK BAKARKA
HIPOPRESIBOAK ETA FISIOTERAPIA
OROKORREAN
ERGONOMIA HOBETZEKO KLASA
PERTSONALIZATUAK



Arragueta, 20
943 530642

ane_mendiá@hotmail.com

Jarraitu gaitzazu!

www.etakitto.eus



@etakitto



Marcán Huella elkarteak eta Eibarko Udalak 'Txakurak uretara' egitasmoa prestatu dute hilaren 11rako, eta Ipuruako kanpoko igerilekuetako atea zabalduko dituzte txakurak bertan bainatu daitezen. Sarrera doakoa izango da, eta Marcan Huella elkarteak pintxoak eta freskagarriak eskainiko ditu.

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi

Belar, Ander Fernandez, Irune

Jaio, Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Irune Jaio

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Irune Jaio

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Bizi-bizi dagan meditxoaren hondamendixa

Ze astakeri eixia nahi daben pentsatze hutsak sutan jartzen nau. 550 metroko menditxo baten 200 metroko eolikuak nahi ditxue jarri.

Bizi-bizi dagon menditxo baten. Baserriz inguratuta, bi ermita oiñetan ditxuala. Bostehun edo seirehun metrota-
ra pertsonak bizi dira eta animalia mordua: ardiak, zaldi,
behor, idi... Horretaz gaiñ hegazti pilla bat: okil eskillaso,
miru edo gabillara, bele, tortolak... Gautxorixak be hantxe
jarduten dabe alkarri uluka. Saguzaharrak urtietan gure
ganbaran bizi dira. Udaberrixan kukuak hementxe pasa-
tzen dau denbora bere sasoia juan arte ; enarak ere urtero
etortzen dira beren kabia egitera, nunbait horrek danok
gustoko dabe auzo polit hau.

Zuhaitz aldetik zer esanik ez, zenbat klase sortzen dan
bertan. Piñuak bota diranean han eta hemen pago eta
haritzak be landatu dira.

Oraiñ hori danori akabatzia nahi dabe? Eztao eskubi-
derik. Hori pentsau eta onartu daben agintari jakintsuak,
danak ganbaratik jota egon biharko dira zihero. Nahikua
da.

Egunero albistegietan klima aldaletari buruz berba
eta berba, eta gero inguruko mendi danak apurtu nahi
dittue. Zuhaitzak moztu, zementoz eta burdiñaz betetzeko.
Denpora gitxi barru, jaiotzen diren aurrek pentzauko dabe
eolikuak hazten direla mendixetan zuhaitzen orde.

Eugeni

Hortik esanak



Gure hiria erakargarri izatea nahi dugu, eta erakargarrita-
sun hori neurtzen dugu kanpoan ematen dugun irudiaren
arabera. Gure hiria clickbait baten bidez definitzen dugu,
zitzu bizian doan hiria dela irudikatzen duen izenburu
erraz baten bidez. Hiri bakoitzak eduki nahi du bere
proiektu izarra, eta helburua, gainera, ez da ekonomikoa,
autoestimuarekin lotutakoa baizik. Autoestimu hori, hiri
baten arrakasta, bisitarien aurrean proiektatzen duen
irudiaren arabera neurtzen da, eta horrek benetan kalte
larriak sortzen dizkio hiriari.

Vicent Molins, kazetaria eta geografoa

Bi arrazoi daude Israelen inpunitaterako. Israel Europaren
parte dela uste du Europak. Israelen genozidioa kritikatzeara
Europa genozidioaren erantzule egitea litzateke. Errusiari
berehala egotzi zioten errua Ukrainan egiten ari denagatik.
Zigorak jarri zizkieten Irani, Ipar Koreari, baina Israeli
ez, Europa mendebaldarraren parte delako. Garrantzitsua
da gogoratzea Europak Israel sortu zuela juduen arazoa
ezin izan zuelako konpondu. Bigarren arrazoi da lobby
sionista oso eraginkorra dagoela Atlantikoaren bi aldeetan.
Inertziatz funtzionatzen du eta autozentsura eragiten du.

Ilan Pappé, Israelgo historialaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PIPARMIN → Pikantearen eraginez ahoa erretzen duen piparra. Gaztelarazko ‘guindilla’.
“Galdara bete ur eran bihar izan dau piparmiñaren erria kentzeko”.
Pertsona errea, genio txarrekoa. Halako gertakizuneri tabernari gehixenak ez detse kasurik
egitten, baiña, Mari Piparminek (izena ondo ipiñi zetsen piparmin hutsa zalako)...

1957

Lehen Jaunartzea
Karmelitetan

Plazaolaren argazki honetan ikusi daitekeen moduan, orain dela urte batzuk herriko haur gehienek egiten zuten Lehen Jaunartzea. Eibarren, Karmengo Amaren eliza izaten zen Jaunartzeak ospatzen lehena, maiatzaren lehen egunean.



Farmaziak

BARIXAKUA 3
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ZAPATUA 4
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 5
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ASTELEHENA 6
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
MARTITZENA 7
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
EGUAZTENA 8
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 9
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
BARIXAKUA 10
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Rosa Sologaitua Oregi.** 90 urte. 2025-IX-25.
- **Teresa Sandoval Alonso.** 94 urte. 2025-IX-28.



Udalak azpikontrataturako garbikuntzako langileek baldintza berdinak izateko borrokan

Eibako garbikuntzako langileak hitzarmen kolektibo bakar bat lortzeko borrokan ari dira. ELA sindikatuak salatu duenez, “Eibarko Udalak hainbat alditan hitz eman du egoerari aurre egiteko neurriak hartuko dituela, baina orain arte ez du inoiz bere hitza bete”. Gaur egun azpikontrataturako enpresak

Impacto eta Bedu Avata dira, adjudikazio berrien ostean arazoak berdina izaten jarraitzen du: bi enpresak baldintza ezberdinetan daudela. Hori onartezina dela salatu dute eta, beraz, garbitzaile guztiek baldintza berberak izatea eskatzen diote Udalari. Hori lortu arte, borrokan jarraituko dute.

Pertsona nagusien eskubideen aldeko manifestazioa egingo da bihar eguerdian

Adinekoen Nazioarteko Egunaren harira, biharko (urriak 4) manifestazioa deitu dute AGIJUPENS (Erretiratu eta Pentsiodunen Gizarte Zentroen Gipuzkoako Federazioa), Eibarko Duintasuna, Eibarko Pentsionisten Taldea, Eibarko Emakume Pentsionistak, Berrarmatzearen Aurkako Intsumisoak, Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik ez taldeek. Mobilizazioa 12:00etan abiatuko da Untzagatik. Ondoren, 14:30ean, herri-bazkaria egingo da.



Ipuruako zozketan saritutako zenbakiak

Aurreko asteburuan Ipuruako jaientan egin zuten zozketan, hauek izan dira zenbaki sarituak: 150, 156, 266, 290, 306, 344, 416, 628, 732, 966, 1138, 1191, 1298, 1400, 1468, 1610, 1809, 1849, 1968 eta 1979. Sariak Ogiberri Muxu okindegian jaso daitezke, eta epea urriaren 10ean amaituko da.

Tolosara txangoa urriaren 16ra aldatu du Pagatxa

Pagatxa emakumeen elkarteak Tolosara txangoa antolatu zuen urriaren 15erako, baina egun horretarako Palestinaren aldeko greba deitu dutela ikusita, irteera hurrengo egunean, urriaren 16an egitea erabaki dute: “Ordutegia eta programa berberak izango dira. Etorri nahi baduzu eta izena emanda ez bazaude, edo izena emanda bazaude eta ezin bazara etorri, deitu edo bidali WhatsApp-a 649881374 telefonora”.



Urriaren 12rako manifestazioa deitu dute

Urriaren 12rako manifestazioa deitu dute, “Stop Genozidioa. Eibar Palestinarekin” goiburuari jarraituta, 12:00etan hasiko da, Untzagan.

Eibarko gizarte elkartearen lehen topaketa egingo da bihar Errebalen

Bihar (urriak 4) Eibarko hainbat gizarte elkarte topaketa egingo dute Errebal eraikinean, 11:00etatik 14:00etara. Udaletik adierazi dutenez, "elkarateak herritarren-gana gerturatu ez ezik, udalerriko elkartegintza sustatu eta ezagutaraztea du helburutzat lehen aldiz egingo den topaketak". Herritarrei zuzendutako zenbait ekintza ere egongo dira, eta amaieran solasaldia egingo da.



Domekako mezarekin batera hasiko da Eibarko katekesi-ikasturtea

Domekan, urriaren 5ean, 12:00etan Karmengo Amaren elizan ospatuko den mezarekin batera hasiko da Eibarko parrokiako katekesiko ikasturtea. Pedro Laskurain Eibarko parrokoaren berbetan, "denak daude gonbidatuta, bereziki katekesian haurra duten familiak. Aurten, 2019an jaiotako haurrak daude deituak Lehen Jaunartzerako prestaketa-katekesiari ekiteko. Hiru ikasturteko proiektua da, eta beharrezkoa da guztiz osatzea". Interesdunek izena eman dezakete oraindik, parrokan bertan.

Urriaren 8an gogoratzen da Dislexiaren Eguna

Urriaren 8a Dislexiaren Nazioarteko Eguna da. 2008an, Dislexia eta Familia Elkarateak (DISFAM), Espainiako Dislexia Federazioarekin (FEDIS) batera, "Dislexiaren alde Batuak" kanpaina sortu zuen, ikaskuntza-zailtasun espezifikoetarako buruzko kontzientziazioa pizteko helburuarekin. Dislexiari eta kanpainari buruz gehiago jakiteko: www.disfam.org.



PLASTIKO MAGIKOA

Sormena formatu berrietan esploratzeko aukera paregabea. Plastikoa berezi batean marrazki eta mezu pertsonalizatuak sortuko dira, gero giltzako, belarritako... bihurtzeko beroaren laguntzaz, era erraz eta dibertigarrian.

URRIAK 28
18:30
...eta kitto!
Euskara Elkarteak
943.200.918
elkartea@etakitto.eus

7€
personakoa
5€
bazkideak



Izen-ematea zabalik urriaren 3tik 22ra | +12 (umea heldu batek lagunduta)



Tabernarien arteko Pintxo Lehiaketarako izen-ematea urriaren 12an itxiko da

Urriaren 12ra arte eman daiteke izena “21. Pintxo Lehiaketa. Eibar-ko tabernarien arteko San Andres Saria” lehiaketarako. Datu guztiak (argazkia barne) arratekultu@gmail.com helbidera edo WhatsApp bidez (638284912) bidali beharko dira. Lehiaketa urriaren 29an eta 30ean izango da. Arrate Kultur Elkartek antolatzen du lehiaketa, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren, Eibarko Udalararen eta Eibarko ostalarien laguntzarekin, eta hiru sari banatuko dituzte:

Pintxo Onenari Saria (200 euro, diploma, garaikurra, eta “Bakailaoaren txapeldunen txapelduna” eta “Debabarreneko txapelduna” bakailao-pintxoaren txapelketetan Eibarko ordezkari gisa parte hartzeko pasea); Bertako produktua hobekien erabiltzen duenari saria (200 euro eta diploma); eta Publikoaren saria (200 euro eta diploma). Argibide gehiago Arrate Kultur Elkarteko bulegoan, 638 284 912 telefonoan, edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzita.

On Ekin enpresa-idea eta proiektu lehiaketaren edizio berria antolatu dute

Ekingune elkarteak antolatzen duen On Ekin enpresa-idea eta proiektu-lehiaketaren lehen fasea abiatu da. Antolatzaileen berbetan, “helburua pertsonen edo enpresen sormena piztu eta sustatzea, eta ekimenei laguntzea da, itxuraz merkatuan funtzionatu dezaketen negozio-kontzeptuak biltzen dituzten proiektu eta ideiak aurkeztuz”. Proiektuak edo ideiak aurkezteko

epea urriaren 19an amaituko da, eta hautagaitzak www.ekingune.com webgunearen bidez aurkeztu beharko dira, bertan dagoen formularioa beteta. Proiektuak entregatzeko epea amaitu eta gero, epaimahai batek baloratuko du lehiaketara aurkeztutako proiektu edo ideia bakoitza. Irabazleak, berriz, bigarren fasean aukeratu-ko dira.

Euskararen Plan Estrategikoaren berri emateko batzar orokorra deitu du Eibarren AKEBAI-k

Aurtengo urtearen amaierarekin batera amaituko da 2016an onartu eta indarrean jarri zen “Eibarko hiria: Euskararen Plan Estrategikoa 2016-2025”, eta azken hamar urteotan egindako lana aztertu eta emaitzak behatu ahal izateko diagnostiko eta balorazio prozesua abiatu berri dute. Eibarren Akebaitik adierazi dutenez, “prozesu honetan bilduko diren iritzi, gogoeta eta proposamenak ezinbestekoak izango dira 2026an diseinatzeko hasiko den euskararen plan estrategikoa berrirako”. Hori dela eta, Akebaiko batzar orokorra egingo da urriaren 8an (eguztena), 18:30ean Portalea (1. solairuko 1-2 bilera gelan). Prozesuaren berri izan nahi duen oro, bai eta balorazio eta diagnostikoan parte hartzeko interesa duen edonor ere dago bertaratzera gonbidatuta,



1945ean jaiotakoen ospakizuna urriaren 23an

1945ean jaiotakoak (*Gran Reserva*) urriaren 23an elkartuko dira, 12:00etan Untzagan, eta egun osorako plana prestatu dute: Izena emateko 75 euro sartu beharko dira Kutxabankeko kontu honetan: ES41 2095 5035 0091 2601 0277 (izen-abizenak adierazi).



Eibarko txistulari banda (1935). Ezkerretik hasita: Leon Laspiur, Florencio Ansola "Txanbolin", Lucio Bengoa, Sabino Barrenetxea "Txatua" eta Pedro Alberdi "Ospittal". EIBARKO UDAL ARTXIBOA/CASTRILLO ORTUOSTE FONDOA

San Miguel eguna Aginagan. Meza, taberna, herri-kirolak, erromeria. "Tanbolinteroak" ere joaten ziren Eibartik. Pedro "Maria Ospittal" txistulariaren inguruko kontuak; neska-laguntzera joanda gertatutakoa.

San Miguel eguna Aginagan; Eibarko txistulariak

Euxebi Gisasola Aldazabal
(1922 – 2008)



Aginagako Zumaran baserrian jaiotakoa. Ama Arrate Mugitzaberri baserrikoa zuen. 8 urte zituela, Aginagako eskola egin zuten eta bertan egin zituen ikasketak Gerra Zibila hasi zen arte. Sasoi hartan Euxebik 14 urte zituen. Garai gogorra zen, baina Gisasolatarrak baserrian gelditu ziren. Ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen. Eibarko euskararen gaineko hainbat ikerketa eta liburutarako eman du bere lekukotasuna.

Euxebi Gisasolari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Jaixetan jente mordua egongo zan, sanmigeletan...] Bai, jente mordua egoten zan, bai. (...) Tabernia be eguan orduan eta, ba, badakizu. Gauza haundirik ez. Orduan izaten zan mezia. (...) Gero, generalmente, zeozer egoten zan: edo probak, edo aizkor-jokua, bueno, herri kirolak (...). Eta, gero, erromerixia. San Migel egunian bertan etortzen ziran, oin be etortzen dira, baiña ez dago holakorik, tanbolinteruak etortzen ziran Eibartik, ta buenooo! Neska ta mutillak, kuadrilliak, buenooo! Jata plaza guztia beteta, danok dantzan meza ostian. Politta izaten zan, bai, garbi esanda politta! (...) Gaiñera bat, tanbolintero hori, Pedro Ospital, ezta? (...) Ha zuan ona, eneeeee! Harek harrapatzen zittuen biribillak hor! Madre mia! Baiña baten, badakizu zer pasau egin jakon? (...) Pixkat berdulero [zan]. (...) Ta jua da neska laguntzera, ta zubi txiki baten pasau bihar, ta zeozer egingo etsan edo baiña... (...) Neska horrek jata bultza egin detsa, ta jata zubipera, erre kara, ta neskia etxera eta ha hantxe! (Barreak) Hori politta zan gero, eh! (...)

... e t a k i t t o !



Eguraldia lagun, ehundaka eibartarrek egin zuten bat joan den zapatuan ...eta kitto! jaiarekin. Euskararen egarria soberan asetu genuen euskaltzaleok, musikaz, antzinako ohiturez eta giro onez betetako egunean. Jasotako babes horri esker ...eta kitto! Euskarra Elkartearen jardunak arinago egingo du bidea. Eskerrik asko!

ARGAZKI GUZTIAK



E G U N A 2 0 2 5







“Nire ametsa noizbait Zinemaldian pelikula bat aurkeztea da”

MARINA PEROSANZ • Zinemagilea eta Zinemaldiko langilea >>>



Lau urte daramatza Marina Perosanz eibartarrak Donostiako Zinemaldian lanean. Udalekuen gisa bizi du Zinemaldia: “Zoragarria da lanera joan nahi izatea eta urtero irrikaz itxarotea une hau.”.

Donostiako Zinemalдитik herrira itzuli berrian gaixorik jarri da Marina Perosanz zinemagilea. Gaztearen hitzetan, gorpuzak eutsi egin dio deskantsatu ahal izan duen arte. Ez da gaixorik jarri den langile bakarra. Azaldu duenez, aste oso intentsoa izan da Zinemaldiko langile guztientzat. “Hain azkar pasa da... Oraindik ez dut asimilatu. Hori bai, lankideak dagoeneko faltan botatzen ditut”.

Nola iritsi zara Donostiako Zinemaldian lan egitera?

Betidanik izan naiz oso zinemazalea, izugarri gustatzen zait pelikulak ikustea. Nire ametsa noizbait Zinemaldian pelikula bat aurkeztea da, baina hori gertatu arte... Orduan, zinemagile gisa joaterik ez nuenez, okurritu zitzaidan langile gisa joatea. Eta oso ondo ateraz zait: pelikulak ikusten ditut eta gainera ordaindu egiten didate! Gainera, izeba eta osaba Donostian bizi dira eta aste hau haiekin pasatzen dut.

Zein izan da zure eginkizun nagusia aurtan?

Belodromoan lau emanaldi mota ditugu: Ikastetxeak Belodromoan, Orkestra sinfonikoa, pelikula “normalak” esango dugu eta Klausura Galaren emankizuna. Ni beheko palkoen ardura naiz. Umeen emanaldietan, lankideek pasillotik ikastetxeak bidaltzen dizkirate, eta nik esertzen laguntzen diet, batez ere gurpil-aulkiekin datozenei edo mugikortasun urria duten pertsonen. Beheko aldean nagoenez, Belodromo osoa ikus dezaket; orduan, ikastetxe bakoitza zein

harmailatan esertzen den apuntatzen dut, gero irteera antolatzeko. Egunero 2.000 haur inguru etortzen dira Belodromora. Bestalde, arratsaldeko emanaldietan edo helduen emanaldietan, VIP palkoaren ardura naiz, eta famatuei laguntzen diet. Esan behar dut askotan umeak laguntzea famatuak laguntzea baino errazagoa dela... Horretaz gain, lankideei behar dutenarekin laguntzen diet: Belodromoa talde lana da. **Zein momentu edo une nabarmenduko zenuke bi- zipen berezitat?**

Denbora pasatzeko, aurtan, ‘Go!azen’ telesaila ikusgai Zinemaldian izango zirenez, haien dantza bat ikasten aritu gara. Ba azken emanaldian haiekin ateratzeko gintuzten dantzatzera (barreak). Ez zen langileok taula gainera igo ginen momentu bakarra: ikastetxeen azkenengo proiektuak, urtero lez, Gangan Style dantzatzera ateratzeko. Ostiralean denbora gehiago eman genuen eszenatokiaren gure lanpostuetan baino. Oso dibertigarria izan zen.

Bestalde, aurtan asko miresten dudana zinemagile bat etorri da Belodromora, David Perez Sañudo. Oso emozionatuta nagoen. Gainera, bere filma ikusten geundela, momentu batean abesti oso famatu bat agertzen da. Belodromo osoa hasi zen hura koreatzen. Oso energia polita sortu zen eta, noski, negarrez bukatu nuen. Hainbeste pertsona batera kantatzen... Ederra izan zen.

Eta azken momentu bat, anekdota moduan: Klausura egunean VIP aretoa okupatuta zegoenez, de-



Belodromoko lantaldea Go!azen telesaileko aktoreekin. Bertan daude Jon Alonso aktore eibartarra eta Marina Peronsaz.

nok elkarrekin komunetan ezkutatuta afaldu behar izan genuen. Kutrea izan zen, baina oso polita eta barregarria.

Zer berezitasun du Belodromoak, Kursaaileko galekin alderatuta?

David Perez Sañudok esan zuen moduan: “Nork nahi du Kursaaia Belodromoa izanda?”. Belodromoa festa bat da; izan ere, 2022an, Fermin Muguruzak txosna bat eta txaranga bat ekarri zituen Belodromora. Oso berezia da. Beti dago jai giroa: 2.000 pertsona inguru toki berean elkartzea... magikoa da. Gainera Zinemaldiko “pifostiotik” urrunen dagoena da, eta mikroklima propio bat sortzen dugu bertan. Esan daiteke informalekoa dela. Lantaldea familia bat gara, eta hori gero emandako tratuan islatzen da (galdetu Jon Alonsori, aurten aktore moduan egon baita gurean). Belodromoa sekulakoa da.

Zinemaldiaren antolakuntzaren parte izateak zer esan nahi du zuretzat?

Ikasketa. Hainbeste pertsonekin harremantzean, nabaritzen da nork egin duen lan publikoaren aurrean eta nork ez. Zinemaldia, filmez haratago, atzean dauden milaka langileak dira; horri esker eusten zaio jaialdi polit honi. Makina handi baten engranajeak gara, guztion lanari esker funtzionatzen duena.

Etorkizunean jarraituko al duzu antolaketa? Zinemaldiaren parte izatera gonbidatuko zenituzke herritarrak?

Noski. Izan ere, datorren urteko irailean lanean ari banaiz, jai hartu nahi dut jaialdian lan egiteko. Udaleku batzuk modukoa da. Zoragarria da lanera joan nahi izatea eta urtero irrikaz itxarotea une hau. Ikusle moduan Belodromoa bisitatzeak aukera baduzue, han aurkituko nauzue ongi etorria emateko.

Bada gehitu nahiko zenukeen mezurik, komentariorik...

Aupa Belodromoa! Aupa Zinemaldia! Eta aupa Zinema! Zinemalditik haratago, mundu guztia animatu nahi dut urtean zehar zinema-aretoak betetzera.



OSKAR ARANTZABAL

Sozialinperialismoaren paradoxa

Sarri baino sarriagotan entzun (eta esan) dugu *“eskubiko espainiar baten antzekoena ezkerreko espainiar bat dela”* (edo, nahiago baduzue, alderantziz). Esamoldea nonbait Josep Pla idazle katalanari egozten zaio.

Munduko langileak...? Karl Marx hil zenean (1883) munduan hirurogei estatu inguru zeuden, gaur egun berrehunen bueltan. Zoritzarreko Palestina edota, dekolonizazio prozesu negargarri baten ostean (1975), sozialinperialismo espainiarrak berriki saldutako **Sahara** eta beste lurralde batzuk gorabehera.

Beraz langileak poloniarrek, errumaniarrek, frantsesak, espainiarrak, euskaldunak dira. Maiatzaren lehenengo manifestazioez gain, inoiz ikusi al duzue estatu bateko langileek bestekoak laguntzen? Klasea aberri bat bezala bizi al daiteke? **Estatuak berak** (eta ez beste inork) ematen ditu eskubide eta betebeharren zerrenda (bai langile, bai hiritarrei). Eta bistan denez, langileon baldintzak asko hobetu zaizkigu estatuen kopurua ugaltzearekin.

Norvegiaren kasua esanguratsua da. 1905ean bere independentzia lortu zuen, 500 urtez (nork dio Nafarroako Estatuarenak antzinako kontuak direla?) Danimarka eta gerora Suediaren menpe bizi ondoren. Suediako gobernuaren gerra nahiei aurre eginez, bertako langileek gerrari ezetz esan zioten, elkartasuna adieraziz norvegiarrekiko. Gaur-gaurkoz biak ala biak punta-puntan agertzen dira munduko ranking gehienetan eredugarri (aberastasuna eta bere banaketa orekatua, genero parekidetasuna, hezkuntza sistemak eta ikerketa, gardentasuna, zoriontasuna, etab.)

Benetako **elkartasun solidarioa** langile ingelesek eskoziarrekin edota espainolek euskaldun eta katalanekin beharko lukete (eta alderantziz), mundu justuago batera iristeko, klase eta nazio zapalkuntzarik gabekoa. Identitatea eguneroko kontu bat ere badelako.

Frantziako Iraultza (gogoratu hauek monarkia gillotinatik pasa zutela) uniformizazioaren aldeko apustu bat izan zen (izan gaitezen denok frantses!). Zaharkitua geratu den mundu ikuskera horretan, ez da harritzekoa tokiko hizkuntzen kontrako sutsuenak komunista frantsesak izatea (beraien burua modernoago ikustearren oraintsu *“intsumisotzat”* dutenak). Beste horrenbeste, Pirinioen beste alde honetako kopia txarrean, ustez plurinazionala den ezker konfederalak eta sindikalgintza **jakobino zentralistak** dituzten jarrerak gai hauekiko: hizkuntza diskriminazioa, gizarte segurantzaren transferentzia, migrazio politikak, gutxieneko soldata eta pentsioa eta abar luze bat. Laburbilduz, inoren hizkuntza bigarren mailakotzat hartu edota herri bati erabakitzeke eskubidea ukatzen diona ezin da **ez aurrerakoi ez progresista** izan. Areago, zapaltzaile gisa, marra gorri eta betoak jarritz, bere izaera ustez demokratikoa zalantzan jartzen hasi behar da berandu baino lehen.



“Inoren hizkuntza bigarren mailakotzat hartu edota herri bati erabakitzeke eskubidea ukatzen diona ezin da ez aurrerakoi ez progresista izan”

Osasuna



zain- tzen

...eta kitto! aldizkariak urtean behin argitaratzen duen Ongizate gida da honakoa. Aurtengoan, Basagune elkarteak elikagai ekologikoak eta ongizatea uztartu ditu, Jon Azpiazu entrenatzailearekin elkartu gara indar ariketei buruz berba egiteko eta osasun mentala eta arnasketa gaiak ere jorratu ditugu.



BASAGUNEA-REN
ESKUTIK



Zer dira

Elikagai ekologikoak eredu ekologikoan (biologikoan, organikoan) ekoizten diren elikagaiak dira, zeinak lurraren emankortasuna eta ekosistemen, abereen eta pertsonen osasuna orekatzea eta indartzea duten helburu.

Eredu honetan aritzeak bioaniztasuna indartzea, tokian tokiko zikloen errespetua eta kutsagarriak izan daitezkeen sustantziak ekiditzea eskatzen du.

Horregatik, nekazaritza ekologikoaren teknikak ez ditu ongarri kimiko, pestizida, genetikoki eraldatutako organismo eta, orokorrean, naturalak ez diren bestelako gai sintetikorik erabiltzen.

Teknika horiek betiko ohiturak, berrikuntzak eta zientzia uztartzen ditu eta ingurumenaren zainketa eta bidezko harremanak bultzatu.

elikagai ekologikoak

Lurra

Nekazaritza ekologikoa lurrean oinarritutako ekoizpen sistema bat da eta elikagaiek berez dituzten ezaugarriak lortzeko lurra bera zaindu eta aberastu behar da. Lurraren zainketa behar dituen nutrienteen hornikuntza orekatuaren bitartez (simaurra, landare-ondarrak, konposta) eta atseden zikloak ordezkatzuz egiten da. Lan horiek behar bezala eginez gero lurraren emankortasuna aberasten da.

Nekazaritza ekologikoan ez dira lurrik gabeko nekazaritza teknikak onartzen, hala nola ekoizpen hidroponikoa.

Pertsonak

Elikagai ekologikoek pertsonen osasuna ere babesten dute. Izan ere, hainbat ikerketek diote elikagarritasun handiagoa dutela, nutrienteen oreka eta asimilazioa modu naturalagoan eskaintzen dutela eta kaltegarriak izan daitezkeen substantzia kimikoak ekiditzen dituztela.

Gainera, maila sozialean, nekazaritza ekologikoak kontsumitzaileen eta ekoizleen arteko bidezko harremanak indartu nahi ditu, bata-besteen premia dugulako eta elkar elikatzen garelako. Horretarako bultzatu nahi ditugu elkarren arteko komunikazioa erretzuko duten sareak, hala nola merkatalgune txikiak, azokak, kontsumo-elkarteak eta abar.

Landareak

Lur emankorretan hazitako landare eta laboreek zapore eta elikagarritasun handiagoa eskaintzen dute. Gainera, nekazaritza ekologikoan bertako barietateak lehenesten dira eta horiek, lurraren eta klimaren baldintzetara egokitzeko ahalmen handiagoa dute, izurrite eta gaixotasunen aurrean erresistentzia naturalak garatu dituztelako.

Ziurtapena

Elikagai ekologikoen ekoizpena europar-arautegi batez araututa dago eta urtero ikuskapenak egiten ditu dagokion kontseiluak (ENEEK) etxalde bakoitzean, arautegia betetzen dela justifikatzeko eta ziurtagiria eguneratzeko.

Horretaz gain, etxalde batzuek Berme sistema parte-hartzaile eta herritarren ziurtagiria (EHKO) ere badute.

Abereak

Abereen elikadura eta hazkuntza-sistema ahalik eta gehien larreen (belardien) erabileran oinarritzen da eta, gehigarri bezala, modu ekologikoan ekoiztutako laboreak erabiltzen dira. Abereen gorotzak lurrari emankortasuna osatzen lagunduz zikloa modu orekatuan ixten da.

Abereen osasuna gaixotasunen prebentzioan oinarritzen da. Horretarako, arraza autoktonoak, kalitatezko elikadura, larretze erregularra eta azpiegituren tamainara egokitutako kopurua bezalako irizpideak konbinatzen dira.



Gazteak eta indar ariketak

“Arlo estetikoa indar ariketen ondorioetako bat izan beharko litzateke, ez helburu nagusia”

Gero eta nerabe eta gazte gehiagok jotzen du gimnasioetara. Askotan jarri da ezbaian eurentzat komenigarria den indar-ariketak egitea, eta zalantza hori argitu nahi izan dugu.

Ion Azpiazu entrenatzailearengana jo dugu indar ariketek nerabe eta gazteen artean duten eragina nolakoa den jakiteko, baina lehenik eta behin galdetu nahi izan diogu ea gure susmoa egia den: Gero eta gazte gehiagok jotzen dute gimnasiora indar ariketak egitera? “Bai, badago joera hori”, diosku irmo, eta berak “albiste ona” dela deritzo.

Argi eta garbi uste du joera positiboa dela, eta bere ustez, joerak jarraitzen badu, “eta horrela izango dela dirudi”, gizartearentzat ere positiboa izango da. “Osasuntsuago egongo garelako”, bere iritziz. “Adibidez, mugimendu patroiak ondo landuz gero, lesioak ehuneko handi batean ekidin daitezke; eta, luzera begira, eguneroko jardueretan hobeto sentituko gara. Hori da onurarik handiena”.

Dena dela, zenbait alderdi kontuan hartzea komeni dela esan digu eta alde txarrak ere badituela. “Adibidez, gazteei dagokienez, uste dut sare sozialek kalte handia egiten dutela”, diosku. “Sare sozialetan ikusten duten guztia agian ez da zuzena, informazioa filtratu egin beharko litzateke. Horrela, gero eta gazte gehiagok egiten dituzte indar ariketak, baina euren

helburua askotan estetikoa izaten da. Arlo estetikoa indar ariketen ondorioetako bat izan beharko litzateke, ez helburu nagusia. Nor bere buruarekin ondo sentitzea, beste kirol jarduera batzuek gustura egin ahal izateko gaitasuna edukitzea edo egunerokoan hobeto sentitzea izan beharko lirateke helburuak”, bere ustez.

Entrenatzaileen garrantzia

Azpiazuren iritziz, “indar ariketekin zenbat eta lehenago hasi, hobe”. Hori bai, esan digu hainbat gauza kontuan hartu behar direla: “Nerabeek koordinazio falta izan dezakete (mutilek neskek baino gehiago), ezin zaizkie mugimendu patroio oso zailak jarri... Baina, era berean, inpaktua edo lan-karga jasotzeko erraztasun handiago dute, eta baita mugimendu-patroiak edo mekanikak barneratzeko ere”.

Gauzak horiek ondo nola egin jakiteko eta kontrolatzeko, entrenatzaileen lana berebizikoa dela iritzi du Azpiazuk: “Oso garrantzitsua da horrelako arike-

BIDEOA



tak egiteko entrenatzaile baten begiradapean aritzea. Gazteek informazio falta dute eta asko hedatu da jarduera hauen aktibitatea. Beraz, oso garrantzitsua da entrenatzaile bat edukitzea eta jarduerak modu presentzialean egitea”.

Indar ariketen inguruan pentsatzean, askori pesa erraldoiak etorriko zaizkie burura, baina indar ariketak modu askotan egin daitezke. Zentzu horretan, Azpiatzuk azpimarratzen du gorputz guztiak ezberdinak direla eta ariketak pertsona bakoitzari egokitu behar zaizkiola. Dena dela, orokorrean berba eginda, “gazteen artean potentzia eta egonkortasuna landu beharko lirateke batez ere”, bere iritziz. Lan hori eginda, indar ariketak ondo landu ahal izango dituztela esan digu eta, horrela, eurentzat ez dela lan zaila izango.

Eta behar baino indar ariketa gehiago egiten baditugu? “Den-dena neurrian egin behar da”, diosku entrenatzaileak. “Normalean, gazteek errespetua diete indar ariketei eta pisu gutxi hartzera jotzen dute. Era berean, lehia ez izaten saiatzen gara. Indarra lantze-

ko konfiantza hartzea eta euren gustukoa izatea lortu behar dugu entrenatzaileok. Konfiantza hartzen dutenean eta abilak direla ikustean motibatu egiten dira, baina ez dira pasatzen”. Gainera, bere ustez, “indar ariketak epe luzean landu beharko lirateke”, eta horregatik entrenatzaileen ardura izan beharko litzateke indar ariketak egiteko gogoia sustatzea.

Esan bezala, bakoitzak bere neurrira egin behar ditu indar ariketak, baina gainetik esanda eta ulertuta entrenamendu bakoitzaren iraupena ordubetekoa izaten dela, “asteen bi edo hiru aldiz egin beharko lirateke”, Azpiatzuren ustez. “Egun bakarra gutxi da eta hiru baino gehiago gehiegi iruditzen zait, batez ere nerabeengan. Ulertu behar dugu gorputzak adaptazio batzuk dituela eta horiek jaso edo barneratu behar dituela. Bolumen edo pisu asko sartzen badugu, kaltegarria izan daiteke. Dena dela, gazteen artean ez dut uste indar ariketak hiru egun baino gehiagotan egiten direnik, beste mota batzuetako jarduerak ere egiten dituztelako”.

Gazte eta nerabeentzako TREBAkuntza

Ongizate emozionala eta begirada kritikoa ardatz

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak TREBA Nerabeak prestakuntza-programa berria jarri du abian, “12 eta 16 urte bitarteko gazteek beren garapen pertsonalerako funtsezko tresnak gara ditzaten”. Programa hau TREBA Gazteak, 17 eta 21 urte bitarteko gazteentzako programari gehitzen zaio. Prestakuntza-eskaintza doakoa izango da, eta 230 ikastaro inguru izango ditu 2025ean, ongizate emozionalari, begirada kritikoari, sexualitateari eta bizitzarako trebetasunei buruz, adin-tarte bakoitzerako egokituta.

Udaberrian hasitako bidetik, udazkenean ere nerabeei beraien heziketa-prozesuan lagunduko dieten hainbat gairi buruzko ikastaro laburrak emango dituzte Gipuzkoako hainbat herritan, eta Eibarren lau ikastaro emango dituzte urrian. Ikastaro guztiak

doakok dira, eta izen-ematea Eibarko Udalaren webgunearen bidez egin behar da, bertako formularioan eskatzen diren datuak bete eta bidalita.

Horrela, Eibarko gaztetxoek (12 eta 16 urte bitartekoek) bi ardatz nagusitan, ongizate emozionalean eta begirada kritikoa sakontzeko aukera izango dute, TREBA Nerabeak programaren baitan antolatatu diren saioetan. Antolatzaileek diotenez, “helburua argia da: nerabeei bizitzarako tresnak eskaintzea, norbanako eta gizarte garapena indartuz”.

Eibarren egingo den lehen saioa “Ongizate emozionala: kuadrillen saltsak” izenburukoa izango da. Urriaren 7an egingo da, 17:30ean Portalean. Tailer honetan nerabeen arteko harreman-sareak landuko dituzte, Beñat Benitez trebatzailearen laguntzarekin: “Helburu orokorra Gipuzkoako nerabeek harremanak

Haur, nerabe eta helduenganako arreta psikologikoa



GONZALEZ DE MENDIBIL

PSIKOLOGIA | PSIKOTERAPIA

www.gonzalezdemendibilpsicologia.com

T.Etxeberria 5, 1-C | 623 45 31 95



**PSIKOLOGIA
ZERBITZUA**
Eibarren eta OnLine

Lehenengo saio informatiboa doan

Isasi, 28

698 913 987 | sustrai-info@gmail.com | <https://sustraizentroa.com>



izateko dituzten moduei buruzko hausnarketarako espazio horizontal seguru bat sortzea da, kuadrilla ardatz izanik”, diote. Aipatutako helburu nagusi horrekin batera, nerabeen harreman-moduei buruzko hausnarketa bultzatzea, harreman-modu osasungarriak sustatzea, eta nerabeen topagune horizontal eta partaidetzazko bat sortzea bilatzen dute.

Bigarren saioa hurrengo egunean, urriaren 8an egingo da, eta hori ere 17:30ean hasiko da, Portalean. “Ongizate emozionala: emozioak” izenburuko saioa Leire Urrea eta Carol Palacio trebatzaileek zuzenduko dute. Azaldu dutenez, “emozioak lantzeko oinarritzko ikastaroa izango da. Asmo nagusia osasun mentaleko ohitura osasungarriak sustatzea da, horretarako arrisku-faktoreen prebentzioa eta babes-faktoreen garapena bultzatuz”. Lehen saio honetarako, marrazki-teknika artistikoetan oinarritutako dinamikak erabiliko dira: “Introspektzio emozionala errazteko bizipen eta esperientzia tresna gisa erabiltzen dira marrazkiak”, diote.

TREBA Gazteak

Eta TREBA Gazteak programaren eskutik, beste bi saio gehiago egingo dira Eibarren: “Begirada kritikoa: Fake news” (urriaren 21ean) eta “Begirada kritikoa eta diskurtso ukatzaileak” (urriaren 30ean). Biak Portalean izango dira, 17:30ean hasita. Kasu honetan, 17-24 urteko gazteengan ipiniko da fokua. Arduradunek diotenez, “fake news, clickbait, influencer faltsuak... Egia eta gezurra nahasten diren garai honetan, ezinbestekoa da begirada zorrotza izatea. Tailer hauetan buloak nola detektatu, diskurtso toxikoak identifikatzen eta norberaren datuak sareetan nola babestu ikasiko dute gazteek. Eta ez hori bakarrik: publizitatea eta sareetako mezuak nola aztertu erakutsiko zaie, influencerren post baten atzean dagoena ulertu ahal izateko”. Saio bakoitzari buruzko xehetasun gehiago gipuzkoangazte.eus webgunean daude eskuragarri.

Ana Oiarzun Zabaleta


- PSIKOLOGOA
- SEXOLOGOA
- BIKOTEEN BITARTEKARITZA

635 746 250 Urkizu Pasealekua, 7

Mela Villar
R. de Hinojosa **PSIKOLOGOA**

HELDUAK, NERABEAK ETA HAURRAK
Ansietate, depresio eta dolu tratamenduak,
krisi pertsonal egoerak, bikote-arazoak...

Bidebarrieta, 6 - 1. ezk. villar.mela@gmail.com
670 400 177 www.melavillar.com



Pneumologian eta arnas fisioterapian adituek diote arnasketa egoki hartzea “birikak airez betetzetik” askoz harago doala. Onena sudurretik arnasa hartzea da, eta ez ahotik, sudur-hobieak airea iragazi, berotu eta hezatu egiten baitute, arnasbideak babestuz. Gainera, arnasketa diafragmatikoak —hau da, bularra ez ezik sabaldea ere tartean hartzen duenak— birika-gaitasuna hobetzen du, eta baita muskulu-tentsioa murriztu ere.

Onurak ez dira fisikoak bakarrik. Ikerketa zientifikoek frogatu dute arnasketa kontzienteko teknikak estresa eta antsietatea murrizten laguntzen dutela, kontzentrazioa hobetzen dutela eta atseden birsortzaileagoa errazten dutela. Izan ere, gaur egun osasun arreta ematen den inguruneetan askotan gomendatzen dira arnasketa kontzienteko teknikak, yoga, pilates edo meditazioa bezalako praktiken bitartez, besteak beste.

Bestalde, gaizki arnasteak ondorio isilak ekarri ditzake. Arnasketa bizkorra izateak buruko minak, neke kronikoa eta postura-arazoak eragin ditzake. Estresa eta bizimodu azkarra nagusi den garai honetan, arnasa modu egokian hartzen ikastea ezinbestekoa da osasuna zaintzeko.

Ondo arnasteko ez da behar inbertsio handirik, ezta ekipamendu sofistikuturik ere: nahikoa da egunean minutu batzuk airearen sarrera-irteeraz kontzientzia hartzea, hau da, arnasa sudurretik sakon eta erritmikoki egiten dela zihurtatzea. Ekintza sinplea badirudi ere, eragin handia izan dezake gure bizi-kalitatean.

ARNASTEAREN garrantzia z

Automatikoki egiten dugun ekintza da arnasketa. Hain automatikoa izanik, ez diogu arnasketari behar besteko garrantzia ematen. Hala ere, frogatua dago gure arnasketaren kalitateak eragin zuzena duela gure osasun fisiko eta mentalean. Arnasketa sakon, geldo eta kontzienteak odola hobeto oxigenatzen du, bihotz-maiztasuna erregulatzen du eta nerbio-sistemaren orekari eusten laguntzen du.



ITZIAR ASTIGARRAGA
Masaia, Polaritatea,
Reflexokinesia, Biomagnetika

619 446 066
Calbeton 4 - 2 D . 20600 Eibar



DEVI OM

**YOGA ETA
AYURVEDA ZENTROA**

- Yoga klaseak
- Ayurveda masajeak eta terapiak
- Nutrizio, Osasun eta Ongizate kontsultak
- Terapia naturalak

641 512 059

TXALTZA ZELAI 20, BEHEA EZK (EIBAR)

Euskarara hurbildu, erabili eta gozatu!

Martxan da Berbetan programaren ikasturte berria. Orain dela 23 urte ...eta kitto! Euskara Elkartek euskara praktikatzeko sortu zuen programa xume hura egitasmo sendo eta eraginkor bihurtu da. 80 lagun inguru elkartzen dira gaur egun astero euskarazko mintzapraktikako taldeetan. Euskara praktikatzea ez da inoiz hain erraza izan, eta izen-ematea zabalik dago.

Berbetan mintzapraktikako programa aukera ezin hobe da euskara praktikatu nahi baina norekin ez dutenentzat, eta baita euskaraz lagun berriak egiteko eta euskara ikasten ari direnei lagundu nahi dieten herritarrentzat ere. “Askok ez dute inguru euskaldunik eta ez dute euskara norekin praktikatu. Premia horretatik abiatuta

jaio zen egitasmo hau”, diote ...eta kitto!-tik. Ahozko euskara hobetu nahi dutenentzat aukera bikaina eskaintzen die programak, “giro natural eta informalak lagunduta, euskaraz lasai berba egin baitezakete, lotsa eta konplejo barik”.

Bi rol, astean behin, ordubete

Euskara praktikatzeko taldeetan bi rol elkartzen dira: “Batetik, *euskaldun berriak* ditugu, hau da euskara praktikatzeko beharra dutenak: ahozko euskara hobetu, euskaraz berba egiteko erraztasuna berreskuratu, azterketa prestatu, lagun berriak egin edo giro euskaldunean murgildu nahi dutenak. Gutxieneko maila bat izan behar dute, hori bai, B1 mailatik gorakoa, programan parte hartzeko; eta, bestetik, euskaraz berba egitera ohituta daudenak ditugu, *euskaldun zaharrak*. Ez da irakaslea izango, helburua euskaraz jarduten laguntzea da-eta”. Astean behin elkartzen dira





Euskal Herria eta bertoko ohiturak ezagutzeko txangoak egiten dira urtean zehar.

Urte osoan eman
daiteke izena

Hiru egitasmoak
doakoak dira

Informazioa:
943200918
www.etakitto.eus

ordubetez, 4-5 pertsonako taldeetan, euskaraz berba egin dezaten. “Taldeen euren erabakitzen dute non, noiz eta zertarako elkartu, euskaraz gustura eta eroso jarduteko espazioetan: taberna edo terraza batean, pintxo-potean, paseoan...”.

Ekintza osagarriak sarea zabaltzeko
Berbetan ez da astean behineko saioetara mugatzen, kanpo-ekintzak ere antolatzen baitira ikasturtean zehar. “Ekintza horien helburua aisialdia euskaraz eskaintzea da, askok ez baitute horretarako aukerarik izaten. Pare bat irteera egiten ditugu, udazkenean bata eta udaberrian bestea. Horrelakoak egitea garrantzitsua da, talde desberdinetako kideek elkar ezagutzen dute eta aukera polita izaten da berbalagunen euskal harreman sarea zabaltzeko”.

Lotsa gainditzeko aproposa

Berbalaguntzat programa kuttuna da mintzapraktikarena. Talde batzuk “beteranoak dira, ia-ia hasieratik daude, kuadrilla bihurtu dira. Beste batzuk, hasi berriagoak dira, baina aspaldi hasi eta orain dela gutxi hasi, guztiak bat datoz esatean euskaraz lasai eta gustura jarduteko aukera eskaintzen diela egitasmoak”. Baina ez hori bakarrik, praktika behar dutenei lotsa kentzen ere laguntzen die-eta: “Taldeen ez eze, euren eguneroko bizitzan euskaraz jarduteko nolabaiteko auserdia bereganatzen dute”.

Informazio gehiago
elkartearen webgunean:



Berbalagunek lasai eta gustura dihardute euskaraz, astean behin ordubetez, talde txikietan, lotsa eta konplexuak gaindituz



Irteeretan talde eta jatorri desberdinetako kideek elkar ezagutzen dute.

Gurasoak Berbetan eta Ongietorri

GURASOAK BERBETAN

Familien behar bereziak aintzat harturik, Gurasoak Berbetan aldaera sortu zuen ...eta kitto!-k 2010ean, “familia-giroa euskalduntzeko helburuarekin, esparru estrategikoa baita familiarena hizkuntzaren transmisioan”. Etxekoen artean eta beste guraso batzuekin elkartzean euskara gehiago erabili eta bertoko giroa euskaldundu nahi duten familientzat pentsatuta dago egitasmo hau, “etxeko hizkuntza ohituretan eragiteko, etxean eta kuadrillan euskara gehiago erabiltzeko, seme-alabei euskararekiko jarrera positiboa transmititzeko...”.

Talde naturaletan edo kuadrillan

Izena familiak eman badaiteke ere, asko “talde natural moduan datoz. Lehendik eginda dauden taldeek, parkean edo eskolan elkartzen diren guraso-taldeek edo asteburuetako kuadrillek, esate baterako, aukera

polita dute euren egunerokotasunean euskara gehiago erabiltzeko. Horrez gainera, urtean zehar familian egiteko moduko hainbat ekintza egiten ditugu, helduak eta umeak elkarrekin aritzeko: txangoak, eskulan-tailerrak, ikuskizunak...

ONGIETORRI

Harrera eta elkarbizitzarako programa da, helburu duena jatorri ezberdinetako eibartarrak euskarara eta euskal kulturara gerturatzea eta elkar ezagutzea. Horretarako, “kultura eta jatorri ezberdinetako pertsonak elkartzen ditugu, ordu eta erdiko saioetan, astean behin”. Euskara ezer ulertzen ez dutenak dira Ongietorriren hartzaileak, euskara ikasten hasi aurretiko pausoa dela esan genezake. “Euskarara, euskal kulturara eta Eibarko errealitatera gerturatzea garrantzitsua da, gure gizartearen parte

senti daitezen eta euskara eurena ere senti dezaten”.

Saio praktikoak, giro informalean

Talde txikiak antolatzen dira, jatorri eta kultura ezberdinetako jendearekin eta saioak ...eta kitto!-ko teknika-ri batek dinamizatzen ditu herriko lau auzotan: Urkizun (...eta kitto! Euskara Elkartean), Ipuruan (La Salle Isasi ikastetxean), Amañan (bertako eskolan) eta Urkin (Arrateko Andra Marin) umeen eskola-orduetan (14:30-16:00). Giro lasaiean gai ezberdinak lantzen dituzte oso modu praktiko eta dinamikoan. Gainerako egitasmoek bezala, Ongietorri ere ekintza osagarrietan parte hartzeko aukera ematen du, “batzuk eurentzat propio antolatutakoak izaten dira, eta beste batzuetan Gurasoak Berbetaneko familiekin batera egiten dituzte. Modu polita da herriarrok arteko harremanak sendotzeko eta sarea osatzeko”, diote ...eta kitto!-tik.



Berritasunekin hasi du denboraldia Ipurua Klubak

Joan den zapatuan hasi zen 2025/26 denboraldia gimnasia erritmikoko Ipurua Klubarentzat. Gipuzkoako Txapelketan hartu zuten parte Tania Nagornayak eta Miriam Merinok zuzentzen dituzten jubeniletako, kadeteetako eta infantiletako taldeek, eta emaitza txukunak lortu zituzten: kadeteek zilarra lortu zuten, eta jubenilek eta infantilek hirugarren postua eskuratu zuten.

Domekan, kadeteak eta jubenilak Madrilera joan ziren Club Ritmica Vallecask antolatutako Carmen Vives txapelketara, eta kadeteek 12. eta jubenilek 19. amaitu zuten. “Azaroaren amaieran Castellonen egingo den oinarritzko taldeen Espainiako Txapelketarako bidea prestatzeko lehen urratsak izan dira”, Ipuruakoen berbetan.

Estatu mailako hiru talde

Tania Nagornayak eta Miriam Merinok estatua mailan arituko diren hiru talde prestatuko dituzte aurtent. Kadetei dagokienez, Noa Larrañagak, Maddi

Arrazolak, Maddi Lanasek, Nora Eizagirrek, Uxue Astarloak eta Maren Jainagak bigarren denboraldia jokatu dute estatu mailan, aurtent oinarritzko kadete kategorian. “Duela urtebete hasi ziren estatuko lehiaketan, Infantil kategorian, eta 24-25 denboraldian zehar bilakaera bikaina izan dute, maiatzaren 1ean Granadan ospatutako oinarritzko taldeen Kopan sailkapen ona lortzera eramane zituena”, azaldu digute klubetik.

Jubenilei dagokienez, klubak taldea erabat berritu du eta bost taldekideetatik lau gimnasta berriak izango dira oinarritzko jubenilen mailan: Uxue Etxeberria, Yuma Otaño, Nikole Aranbarri eta Itziar Alberdi. Beraz, Nidia Olasolo izango da iaiztik jarraituko duen gimnasta bakarra.

Oinarritzko infantil taldea, bestalde, Nora Jainaga, Mara Lanas, Helena Olasolo, Maren Arza eta Malen Rodriguezek osatuko dute. “A alebin eskola-kategoriatik datoz, eta aurreko denboraldian Eskolarteko Jokotarako sailkatzea lortu zuten”, diote klubetik.



Arakistain SD Eibar-eko atezain ohia hil da

Domekan esan zigun agur Jose Arakistain Arrietak. Futbolaren munduan bide oparoa izan zuen atezain bezala eta gurean ere laga zuen arrastoa, SD Eibar taldean sei partidu jokatu baitzituen 1955/56 denboraldian.

Elgoibartarrak herriko taldean eman zituen lehen pausoak eta,

Real Sociedadek fitxatu ondoren, Eibarren ibili zen lagata hilabete batzuk, Donostiara itzuli aurretik. Bost denboralditan aritu ondoren, Real Madrilera fitxatu zuen 1961ean. 1968an Elx-era joan zen eta Castellón hartu zuen erretiroa 1973. urtean. Gainera, 1962ko Munduko Txapelketan jokatu zuen.



Getxon amaitu dute triatloi denboraldia JAZ Eibar Triatloi Taldekoek


Bere helburuetako bat ez zela onartu arren, Pello Osoro txapelarekin itzuli zen asteburuan distantzia olinpikoko Getxoko Triatloitik. Eibartarrak igeriketa-saio txukuna egin zuen eta bizikletan, ohi bezala, saio bikaina egin zuen. JAZ Triatloi Taldeko lau kide ere lehiatu ziren Getxon, triatloi denboraldia-

ri amaiera emanaz. Taldeko one-na Jokin Amorrosta izan zen, 35. postuan amaituz 2:12:50 denborarekin. Ander Telleria 93. postuan sailkatu zen 2:23:09 denborarekin, Iñigo Gaston 108. postuan 2:25:51 denborarekin eta Aitor Fernandez 145. izan zen helmugan 2:32:01 denborarekin.

Jardunaldi Mikologikoak bihar eta etzi

Eibarko Klub Deportiboak Jardunaldi Mikologikoen 25. edizioa antolatu du astebururako. Bihar, herriko ikasleek Elgoibarko baso batera mendi-irteera didaktikoa egingo dute. Gainera, Deporren-tzako irteera ofiziala izango da. Ondoren, bildutako aleak Erre-bal Plazan sailkatuko dituzte eta, gainera, 11:00etatik aurrera, onddoen zaletuek euren perretxi-koak Errebaleko A eta B aretoetan laga ditzakete hurrengo eguneko erakusketarako.

Domekan, 10:30etik 14:00eta-ra, Errebalen, haurrek eta zaleek bildutako perretxikoak erakutsi-ko dira, eta, aldi berean, txanpien pintxoak dastatuko dira, bakoitzak gustuko duen edariarekin.



Authorised Exam Centre (ES 438)

2025ko ABENDUKO AZTERKETAK

EIBAR / DURANGO

➔ **MATRIKULAZIO EPEAK:**
URRIAren 1etik 24ra

Azterketa	Datak	Tasak
PET FS	ABENDUAK 13, LARUNBATA	106 €
FCE	ABENDUAK 13, LARUNBATA	195 €
FCE FS	ABENDUAK 13, LARUNBATA	195 €
CAE	ABENDUAK 13, LARUNBATA	205 €

Informazio eta matrikulak hemen:

Arrasate	Parlance	943 770683
	Idiomaster	943 790784
Bergara	Espolon School of English	943 760353
	Link Idiomas	943 203959
Eibar	Target Schools of English	607 833 613
	Akerlei	943 176632
Ermua	Key Academia de inglés	943 743044
	ILS	943 744040
Elgoibar	Sounds Great	943 782091
	English Square	648 268 206
Deba	North Street English	652 448 646
	Ibaizabal Ikastola	94 6215877
Markina	Lea Artibai Ikastetxea	94 6169002
Elorrio	Ontrack Hizkuntza	94 6584673
Berriz	Speak up	94 6225294
Mutriku	Gogoz	943 604358



Asteburu borobila Eibar Eskubaloia-entzat

Zilarrezko Ohorezko Mailako emakumeen Eibar Eskubaloiak asteburuan egin zuen debuta ligatan. Santanderreko Blendio Sinfon taldea izan zuen aurrean eta aise gailendu zitzaion, 29-21.

Lehen Nazional Mailako gizonezkoen taldeak, bestalde, sasoi onean dagoela erakutsi zuen beste behin. Fernando Fernandezek mutilek Tolosan jokatu zuten hirugarren garaipena jarraian lortuz, 23-26.



Deporrekoek Kantabriara irteera egingo dute hilaren 11n eta 12an

Kantabriako Ason bailarara eta Lunada ingurura egingo dute irteera, urriaren 11n eta 12an, Eibarko Klub Deportibokoek eta Elgoibarko Morkaiko Mendizale Elkartekoek. Lehenengo egunean, Ason, Peña Lusa eta Portillo de la Sia inguruan 14,08 kilometroko ibilbidea egingo dute. Eta hurrengoan, Lunada, Pico la Miel, Castrovalnera eta Trueba zeharkatuko dituzte 11,48 kilometroko ibilaldiarekin. Izena www.depor.eus webgunean eman daiteke.



Urriaren 19an egingo da Udazkentraila

Kalamua Korrikalari Taldeak Udazkentraila antolatu du urriaren 19rako, zapatua. Antolatzaileen berbetan, ibilbide erraza izango da, "zailtasun teknikorik gabe". Euren kalkuluen arabera, parte-hartzaileek 3 ordu eta 3 ordu eta erdian egingo dituzte ibilbidearen 14,6 kilometroak, 835 metroko desnibel positibo metatua gainditu beharko dutelarik.

Udazkentraila Toribio Etxebarria kalean hasiko da, 08:30ean, eta toki berean amaituko. Doako jarduera izango den arren, aurretik izena eman beharko da antolatzaileei lana errazteko. Horretarako, galdetegia bete beharko da Eibarko Klub Deportivoaren webgunean.



Urbat Urkotronik waterpolo taldeak Euskal Herriko Superkopa jokatu du

Gizonezkoen Urbat Urkotronik waterpolo taldeak zita garrantzitsua izango du domekan, Euskal Herriko Superkopa jokatu du baitu Askartza Claret kiroldegian. Eibartarrek WP Navarra izango dute arerio 14:30ean jokatu den finalaurrekoan eta, finalera sailkatuz gero, 20:30ean jokatu du lukete.



Ibilbide eta data berriarekin dator VII. Eibar Hiria Sari Nagusia

Emakumeen txirrindularitzaren egutegi estua dela eta, maiatzetik urriaren lehen asteburura pasa behar izan dute Eibar Hiria Sari Nagusia. Horrela, joan den asteburuan Ruandan jokatu zen Munduko Txapelketaren eta asteburu honetan Frantzia lehiatuko den Europako Txapelketaren sasoi berean kokatu da lasterketa eibartarra eta, txirrindulari esanguratsuenak etorriko ez badira ere, partaidetza indartsua izango du herriko lasterketak.

Maila goreneko (UCI Women's WorldTeams) taldeei dagokienez, Movistar Team eta Human Powered Health taldeak izango dira domekan, 09:30ean, Toribio Etxebarriako irteeran. Gainera, UCI Women's ProTeams mailako Winspace Orange Seal eta Laboral Kutxa taldeek ere hartuko dute parte, azken horiek Ane Santesteban eta Usoa Ostolaza buru izango dituztelarik.

Guztira, 14 taldek hartuko dute parte eta talde gehienek sei txirrindulari aurkeztuko dituzte probara,

batzuek lau ekarriko dituzten bitartean.

Ibilbidea bi zatitan

Domekan, Elgoibarren, Kilometroak ospatuko denez, lasterketa ezin izango da bertatik pasatu. Beraz, ohiko ibilbidea moldatu egin behar izan dute. Lasterketa Toribio Etxebarrian hasi eta Sorluzera joko dute lehenik. Oñatira iritsi ostean, Udana igoko dute, eguneko lehen mendia. Handik, Zumarraga, Azkoitia, Azpeitia eta Zestoa igaroko dituzte, bigarren mendia igo aurretik: Itziar. Debara jaitsiko dira ondoren, eta Bizkaiara pasa ondoren, Markinatik Ixua igoko dute Toribio Etxebarria kalean amaitu aurretik.

Antolatzaileen berbetan, "lasterketak bi zati izango ditu. Lehenengo zatia nahiko laua izango da; eta bigarrena, Ixuako igoerarekin, izango da erabakiorra". Aipatu dutenez, talde batzuk lasterketa urrutitik apurtzen saiatuko dira eta, beste batzuek, Ixuako igoera baliatu nahi izango dute.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

EIBAR - FC Bartzelona (bihar, 15:00)

Gizonezkoen 2. Maila

AD Ceuta - EIBAR (gaur, 20:30)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Naxara - EIBAR B (etzi, 17:00)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

Burgos - EIBAR B (etzi, 17:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR C - Durango (etzi, 12:00)

Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)

Bergara - URKI (bihar, 16:30)

Erregionaleko Gorengo Maila (gi)

EIBARTARRAK - Idiazabal (bihar, 17:30)

Erregionaleko 1. maila (gi)

URKI B - Ikasberri (bihar, 15:00)

Jubenilen Ohorezko Maila (gi)

Oberena - EIBAR (etzi, 12:00)

Jubenilen Euskal Liga (gi)

EIBAR B - Laudio (bihar, 16:00)

FUTBOL-ZALETUA

- Marem - Bergara P. (bihar, 09:00)
- Baserri - Xania (bihar, 10:30)
- Adahi Etxegi - Malape (etzi, 09:00)
- L. Rueda - Kalaka Bs. As (etzi, 10:30)
- Atsedena: Garajes García

ESKUBALOIA

Zilarrezko Maila (em)

EIBAR ESKUBALOIA - Aiala (bihar, 17:30)

1. Maila Nazionala (gi)

EIBAR ESKUBALOIA - Egia (bihar, 19:00)

Seniorren Euskadiko Liga (gi)

Zarautz - EIBAR ESKUBALOIA B (bihar, 13:00)

Seniorren 1. Lurraldekoa (em)

EIBAR ESKUBALOIA B - Urola (bihar, 11:00)

SASKIBALOIA

Gipuzkoako 1. Maila (gi)

ARTE. JUANTXO - S. Axular (bihar, 14:30)

Gipuzkoako 2. Maila (em)

Drunkat Hoops - EIBAR SASKI. (bihar, 16:00)

WATERPOLOA

Euskal Herriko Superkopa

WP Navarra - URBAT (etzi, 14:30)

Gero, finala edo 3.-4. postuetarako partidua.

Kirol albiste gehiago
gure webgunean





Juan Luis Ibarluzea bere liburu berria aurkeztuko du

Eguenean (urriak 9) aurkeztuko du Juan Luis Ibarluzea Laskurainek “Tu entre nosotros” liburu, 19:15ean Untzaga gizarte zentroan. “De la manzana de Newton a la pelota vasca cuantica” arrakastatsua eta gero, Eibarko ingeniaria liburu-dendetara itzuli da, aurten kalera-tu duen saiakera berriarekin. Bertan giza eboluzioari buruzko gogoeta sakon eta pertsonala egiten du: garunaren biologiaren ikuspegitik hasi eta gu espezie gisa definitzen gaituzten dimentsio espiritual eta soziale-taraino. Irakurleari ibilbide zirraragarria proposatzen dio egileak, garunaren plastizitatea, teknologiaren eta erlijioen eragina, eta ezagutzaren papera gizateriaren bilakaeran bezalako gaiak jorratuz.



Musika Bandak kaleko azken kontzertua emango du gaur

Ebarko Musika Bandak kaleko kontzertuen denboraldia agurtuko du gaur, 19:00etan Toribio Etxebarria kalean. Bixen Ibarrondo zuzendariordeak zuzenduko ditu musikariak. Aurreratu digutenez, “pixka bat denetik” joko baita: “Zarzuela txiki bat, konposizio propioak, eta Alaska eta Mecanoren abestien moldaketak ere”. Gaurkoaren ostean, Coliseora itzuliko dira kontzertuak.



Eibarko Txaranga Eguna ospatuko da bihar arratsaldean

Iazko ekainean egindakoaren bidetik, bihar Txaranga Eguna ospatuko da Eibarren bigarren urtez jarraian. San Andres Eibarko Ostalarien Elkartearen ekimenez, eta Eibarko Udalaren laguntzari esker antolatu den ekimen honetan lau taldek hartuko dute parte: Eibarko Ustekabek eta Latuno Bandok, UKO3 Urola Kostako txarangak, eta Pasai txarangak. Arratsaldez arituko dira herriko kaleak musikarekin girotzen, 19:00etatik 21:00etara. Lau ibilbide osatu dituzte, eta txaranga bakoitzak horietako bat beteko du, horrela musika herriko auzo guztietan entzun dadin. Ondoren, 21:15 aldera lau txarangak Untzagan elkartu eta batera arituko dira.



Bertso-saio elektronikoa egingo da gaur Errebalen

Lanku Kultur Zerbitzuen eta Hankamotxak bertso eskolaren eskutik gaur 22:00etan bertso-saioa egingo da Errebal Plazan. “Itzali eta Piztu” izeneko bertso-saio elektronikoa izango da, eta gaur izango da estreinaldia, Eibarren. Haizea Aizpurua, Haizea Arana, Julio Soto eta Oihana Bartra bertsolariak arituko dira, Manex Pagola eta Libe Goenaga musikarien laguntzarekin, eta gai-jartzailea Idoia Anzorandia izango da.



Euskarazko irakurle taldearen lehen saioa martitzenean

Urriaren 7an egingo den “Idazlearekin Harixa Emoten” irakurle taldearen lehenengo saio honetan Alaitz Melgar Agirre izango da gonbidatua, “Josefa, neska-me” liburuari buruz berba egiteko. Irakurleek liburuari buruzko galderak edo iruzkinak egiteko aukera izango dute. Ainhoa Aldazabalek zuzenduko du saioa, 19:00etan, Portalean (1-2 Batzartokian). Eibarko Udal Liburutegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkartek elkarlanean antolatutako jarduera da hau.



Martin Lopez de Isasiri buruz arituko dira Markeskuan

Aurten 500 urte betetzen dira Martin Lopez de Isasi (1525-1597) eibartarra jaio zela eta, urteurrena ospatzeko, bi hitzaldi antolatu ditu Ego Ibarra batzordeak. “Martin Lopez de Isasi: empresario moderno vasco” izenekoak Gotzon Garmendia EHuko Finantza-Ekonomiako irakasleak emango du, urriaren 9an. Eta “Martin Lopez de Isasi: jatorria, ibilbidea eta ondarea Eibarko eremuan” izenekoak Javier Elorza eta Jose Antonio Azpiazu historialariek emango dute, urriaren 16an. Markeskuan, Lopez de Isasik eta Domenja Orbeak 1593. urte inguruan eraiki zuten jauregian izango dira biak, 19:00etan.



Arrate Kultur Elkarteko bazkideen erakusketa

Aurreko barixakuaz geroztik ikusi daitezke Arrate Kultur Elkarteko bazkideen artelanak, Topalekun. Urtero bezala, era guztietako artelanak bildu dituzte erakusketan. Parte hartzera animatu diren artistak hauek dira: Arrate Osoro, Esteban Oroz, Mikel Estandia, Bakarne Elejalde, Maite Arriaga, Mireia Agirrebeña, Fernando Retolaza, Eli Eguren, Jesus Belaustegi, Vicente Iriondo, Paco Perez Güenaga, Bernardino Perez Güenaga, Josevi Alvarez, Fernando G. Rubia, Esther Galarza, Arrate Plazaola, Carmen Mostaza eta Mamen Piriz. Urriaren 12ra arte joan daiteke ikustera, astegunetan 19:00etatik 21:00etara eta, asteburuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

San Andres jaietarako kartel lehiaketa deitu du Udalak

Eibarko Udalak San Andres jaietarako kartel lehiaketa deitu du. Kartelak aurkezteko epea urriaren 31n amaituko da. Gaia norberaren aukerakoa izango da, baina “Sanandresak Eibarren 2025” esaldia agertu beharko da, nahitaez. Lanak elektronikoki aurkeztu daitezke (www.eibar.eus), edo Pegoran enregatu. Informazio guztia Udalaren web orrian dago.

Tomate-dastaketa eta erakusketa

Tomateari buruzko hitzaldi-dastaketa egingo da Arrate Kultur Elkartean datorren barixakuan (urriak 10). Saioa 18:00etan hasiko da, eta tomatearen barietate tradizionalei buruzko azalpenak emateaz gain, dastatzeko aukera ere egongo da.



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

					8		6
				8	2		7
				1	5		3
		2	1	4		5	7
	6						2
	3	7		8	2	6	
	8		3	5			
6		1	4				
7		3					

5	7	1	6	9	8	2	7
6	8	2	7	4	1	5	9
2	9	7	1	5	8	4	6
1	6	9	2	8	5	7	3
8	7	4	2	6	7	9	1
3	7	5	9	1	1	2	8
4	3	6	5	1	9	8	2
7	1	2	8	3	6	9	5
9	5	8	7	2	2	6	1

s
u
d
o
k
u
a

7	5	9	2	8	6	1	4
4	1	6	7	5	3	9	2
8	2	2	1	4	9	5	6
3	8	9	7	1	2	1	2
6	4	4	2	1	2	8	9
5	3	4	6	7	2	8	9
6	1	2	8	9	4	3	5
7	4	7	1	3	2	5	6
9	8	6	1	6	7	1	3
5	6	9	4	8	4	1	7

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

3		7					2
2	5			9		3	
				5	2		4
	7	3			8	2	
			2		9		
		2	1			7	6
7				1	4		
		6		5			4
4					6		7

Bilatu 5 liburu gorri eta bost urdin eta, ondoren, beheko objektuak



Urriak 3 / Urriak 9

BARIXAKUA 3

BARIXAKUAK JOLASIAN


17:00/18:00 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzako jolasak ...eta kitto! Euskara Elkarrekin antolatuta. Dohainik. Torrekuako parkea.

AZOKA

18:00 Bengoa, Gigil diseinu estudioa, Bi ta Piku. Zezenbide, 6.

AURKEZPENA

18:00 Asanblada Antifaxista. Eibarko Gaztetxia.



MUSIKA

19:00 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Toribio Etxebarria kalea. Ez Dok-Zaizoi taberna.

KOMEDIA FEST

20:30 Agustin Jimenez: "Generacional". 22 euro. Uni Eibar-Ermua.

BERTSO JAIA

22:00 Bertso saio elektronikoa: "Itzali eta Piztu". Bertsolariak: Haizea Aizpurua, Haizea Arana, Julio Soto eta Oihana Bartra. Musika-riak: Manex Pagola eta Libe Goenaga. Gai-jartzailea: Idoia Anzorandia. Doan. Antolatzaileak: Hankamotxak bertso eskola eta Lanku kultur zerbitzuak. Errebal Plazia.

ZAPATUA 4

JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

Goizean, eskoletako haurrekin perretxikoak batzeko irteera. 11:00etik aurrera, sailkatzeko perretxikoak batuko dituzte. Edonork eraman ditzake perretxikoak. Errebal (A eta B gelak).



TOPAKETA

11:00/14:00 Eibarko gizarte alorreko elkarten lehen topaketa. 12:00 Ekintza ezberdinak, Ikasten eta Gazteen Gurutze Gorriaren eskutik. 13:00 Elkarten arteko mahaingurua. 14:00 Topaketaren itxiera. Errebal eraikina.

MANIFESTAZIOA

12:00 Pertsona nagusien eskubideen alde. 14:30 Herri-bazkaria. Antolatzaileak: AGIJUPENS (Erretiratu eta Pentsiodunen Gizarte Zentroen Gipuzkoako Federazioa), Eibarko Duintasuna, Eibarko Pentsionisten Taldea, Eibarko Emakume Pentsionistak, Berrarmatzearen Aurkako Intsumisoak, Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik ez. Untzaga.

TXARANGEN EGUNA

19:00etik aurrera Eibarko Ustekabek eta Latuna Bando, UK03 Urola Kostako txaranga, eta Pasai txaranga. Herrian zehar ibili ondoren, 21:15 aldera Untzagan elkartuko dira.

DOMEKA 5

TXIRRINDULARITZA

09:30 Eibarko Hiria Sari Nagusia. Laboral Kutxa Saria. Womens Elite 1. Pro. Untzaga.



JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

10:30/14:00 Perretxikoen erakusketa eta dastaketa. Errebal Plazia.

BISITA GIDATUA

11:00/14:00 Gerra Zibileko gerra-frontearen ibilbide historikoa. Arrate (Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa hasita).



MARTITZENA 7

LITERATURA

19:00 Idazlearekin Harixa Emoten irakurle taldearen saioa. Alaitz Melgar Agirrerren "Josefa, neskame" liburuari buruz. Dinamizatzailea: Ainhoa Aldazabal. Antolatzailea: Eibarko Udal Liburutegia, ...eta kitto! Euskara Elkarrekin elkarlanean. Portalea (1-2 Batzartokia).

EGUENA 9

IRTEERA

08:00 Mendi-ibilaldia: Plentzia-Gorliz-Plentzia. Bazkaria eraman. Ikasten elkartearen eskutik. Parte-hartzea zabalik. Tren geltokia.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emai-leentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

LIBURU AURKEZPENA

19:15 "Tu entre nosotros", Juan Luis Ibarluzea Lascurain. Untzaga gizarte zentroa.

ERAKUSKETAK

Urriaren 12ra arte

Arrate Kultur Elkarte bazkideen erakusketa. Topaleku.

Urriaren 19ra arte

"Eskala eta zatiak" (Javier Balda) eta "Asmodun elementuak" (Ibon Aranberri). Portalea.

ZINEA COLISEO



“Maspalomas”
DRAMA
2025/Espainia/115’
Zuzendaria: Jose Mari Goenaga, Aitor Arregi
Aktoreak: Jose Ramón Soroiz, Nagore Aranburu, Kandido Uranga, Zorion Eguileor
Zahartzaroa/Heldutasuna. Homosexualitatea

1 ARETOA
• **4an** : 19:45, 22:30 (VOSE)
• **5ean** : 20:00 (VOSE)
• **6an** : 19:30 (VOSE)



“Una batalla tras otra”
THRILLER. AKZIOA. KOMEDIA
2025/AEB/161’
Zuzendaria: Paul Thomas Anderson
Aktoreak: Leonardo DiCaprio, Sean Penn, Chase Infiniti, Benicio del Toro
Immigrazioa. Krimena. Komedia beltza

1 ARETOA
• **4an** : 16:30
• **5ean** : 16:30
ANTZOKIA
• **4an** : 19:15, 22:30
• **5ean** : 20:00
• **6an** : 19:30



“La astronauta”
IZUA. ZIENTZIA-FIKZIOA. THRILLER
2024/AEB/90’
Zuzendaria: Jess Varley
Aktoreak: Kate Mara, Laurence Fishburne, Gabriel Luna, Ivana Milicevic
Extralurtarrak

2 ARETOA
• **4an** : 17:00, 19:45, 22:30
• **5ean** : 17:00, 20:00
• **6an** : 19:30



“Super agente Hitpig”
ANIMAZIOA. KOMEDIA. ABENTURAK
2024/Kanada/90’
Zuzendaria: Cinzia Angelini, David Feiss
Lapurretak

ANTZOKIA
• **4an** : 17:00
• **5ean** : 17:00



ELGETAN



- Enpresako BISITAK edota langileentzako LANDETXEAK.
- GOSARIA barne, LOGELA zabalak eta izugarritzko BISTAK.
- Lasaitasuna eta diskrezioa.

B&B Eguzkitza

HARREMANETAN JARTZEKO:
688 615 600
www.eguzkitzaetxea.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguazten baino lehen egon behariko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.es** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **LETI!**
Bihotz-bihotzez
eskertzen dizugu
egunero ematen
dizkiguzun poza
eta maitasuna!
Orsy, Barry eta Jok.



Zorionak **DANELE!**
4 urte beteko
dittuzu domekan.
Segi beti bezain
irrifartxu!! Maite
zaitugu poxpolin!!



Zorionak **BERNAT!**
Bixar 8 urte,
mutil haundi!
Musu haundi bat
famelixaren eta,
batez be, Oinatz,
Lur eta Naiken
partez.



Zorionak **MALEN!**
politte! Urriak 5ian,
4 urtetxo! Segi orain
arte bezain alai eta
jator! Julen, aita eta
amak asko maite
zaittugu!



Zorionak **UNAI!**
Urriaren 7an 3 urte
egingo dittuzu eta.
Asko maite zaittu-
gu, bihurri!



Zorionak **JOL!**
Gaur 4 urte
betetzen dittuzu,
besarkada haundi
bat familixa
guztiaren eta,
batez be, Pabloren
partez.



Zorionak **JULEN!**
Eguaztenian 10
urte. Segi beti
bezain jator!
Musu haundi bat
famelixaren eta,
batez be, Danel eta
Markelen partez.



Zorionak **SUHAR!**
Atzo 2 urte bete
zenduazen. Gure
etxeko txikixa!
Musu haundi bat
famelixa guztiaren
partez!



Zorionak **AYARA!**
Lau urte betetzen
dittuzu, neska
haundi. Musu
potolo bat danon
partez. Nahikaryk,
amak eta aitak
asko maite zaitugu.



Zorionak **MARIA!**
gure etxeko
neska haundixak
7 urte betetzen
dittu domekan.
Patxo erraldoiak
amaman ta
etxekuen partez!!!



Zorionak amama
IZASKUN eta
NAHIA urriaren
1 eta 5ian urtiak
bete dittuzue eta!
Jarraitu bizipoza
horrekin! Maite
zaituztegu!



**Rosa
Sologaistua Oregui**

2025/09/25

Bizitza honetatik alde egittia ezin dogu galarazi, baiña juateko modu bat aukeratzekotan zeuria izango litzake.

**Eskerrik asko zure
eskuzabaltasunarengaittik
eta gu danok
alkartzeko egin dozun
guztiarengaittik.**

- ZURF FAMELIXA -



Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskeraek
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Donostia erdialdean bi loge-lako apartamentua negurako alokairuan. Altzariz jantzita. Rosa M^o. 653 733 457.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai San Pion. 25 m². Prezioa adosteko. 688 84 72 37 / 656 75 64 70
- Elikagai-denda traspasatzen da Urki auzoan, gaixotasunagatik ezin baita atenditu. 30 urte daramatza dendak auzoan eta erreformatuta dago, hasteko moduan. 655026699.
- 100-200 metro karratu inguruko lokala erosiko nuke. Salneurri merkekoa izatea beharrezkoa da. Karga-deskarga erreza, eguneko argia edo lokalizazioa baloratuko dira. 665732640. Aitor.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da goizez umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa-lanak egiteko. 627 69 71 42.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. 643464307.
- Garbiketa lanak edo nagusien zaintza egiteko prest nago. Arratsaldetan. 620757528. Arrate.
- Gizona eskaintzen da edozein lan mota burutzeko: obrak, tabernak, segurtasuna... Edozein lan motarako prest. 617618764.

- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Ziurtagiriarekin. 642757640.
- Emakumea eskaintzen da persona nagusiak zaintzeko, tabernako zerbitzari eta etxeko garbiketa egiteko prest. 660140707.
- Mutila eskaintzen da garbiketa lanetarako edota nagusien zaintzarako. Asteburuetan edota orduka. Baserriko lanak egiteko ere. 635 94 46 02.
- Emakumea eskaintzen da pertsonen zaintzarako, Interna moduan. Asteburuetan ere. Esperientziaduna eta erreferentziekin. 667742118.

4.2. Langile bila

- Zerbitzaria behar da asteburuetarako Kultu tabernan. Euskaraz jakitea baloratuko da. 943208439. Aitor.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Gitarra, baxu elektrikoa eta ukelele klaseak. Armonia eta konposizioa. Musikene-ko irakasle tituluduna. basseak@yahoo.es 652217737.LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko

klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. salgai

- Gurpildun aulkirako motorra edota ailkia bera ere salgai. 619350803 (Arrate)
- Butaka-relax elektrikoa salgai. Nahiko berria, marroia, antezkoa, ukitu oso leuna. Oso ego-kia mugikortasuna mugatua dutenentzat. 250 euro. 666 982 621.jarriand@hotmail.com

6.2. Eman

- Bi urteko txakurra opartzen dut. Mastin arrazakoa.. 696655908.

6.3. Aurkitu

- Arrateko bidean eskumuturrekoa aurkitu dut. Zurea bada, deitu 658714437 telefonora. 686540051.

6.4. Bestelakoak

- Baserrira erosiko nuke Eibarren edo inguruan. 688 642 761. Asier.

ZURE IRRIBARRE ONENA

JARRAI
GAITZAZU GURE
SARE SOZIALETAN

 @arat_klinika

Toribio Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 851
www.aratklinika.com





EIBAR

HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

10. URTEURRENA

*Eskerrik asko
gure paziente
guztiei*



📍 San Agustín Kalea, 4 behea ezkerre (Eibar) ☎ 943 537 076 · 688 884 808

🌐 www.eibarclinicadental.com

R.P.S. 79/25 Maitane G. Iñiguez - ODONTOLOGIAN LIZENTZIATUA